

AUTOEBALUAKETA INTEGRATUA

Odontologia arloko kasu hau ebatzi:

Karmele bihotzeko protesi balbularra duen 63 urteko emakume bat da eta klinika odontologiko batera doa hortz-erazketa bat egiteko. Pazientea gainera hipertentsoa da eta ultzeraren aurrekariak ditu. Odontologoarekin elkarriketa izan ondoren, **Sintrom® 1 mg, Omeprazol Alter 20 mg EFG** eta **Cozaar®** medikamenduekin tratamenduan dagoela jakinarazten dio. Odontologoak erazketa egiteko **lidocaína 2% + adrenalina 1:100.000** administratzen dio Karmeleri. Behar den anestesia maila lortzeko bi kartutxo eman behar dizkio.

Erazketa egin eta hila bete geroago, Karmele kontsultara dator berriro, hortz-ohien ultzerazio, mina eta odol-jarioarekin. Odontologoak gingigitis ultzeratzaile nekrosatu akutua (GUNA) diagnostikatzen dio eta antibiotiko bat agintzea erabakitzen du.

Kasua ebazteko, hona hemen erantzun beharreko galderen gidioa. Erantzunak arrazonatzea eskatzen da.

1. *Aurkitu medikamentu bakoitzaren fitxa teknikoak Medikamentuen Agentziaren web orrian (AEMPS). Zein da Karmelek hartzen dituen farmako desberdinen erabilgarritasun terapeutikoa?*
2. *Prozeduraren ondorioz analgesiko bat beharko balu, zein aginduko zenioke Karmeleri?*
3. *Beste neurriren bat hartuko al zenuke paziente honekin hortz-erazketa egin baino lehen edo gero? (kontuan hartu bihotzeko protesi balbularra daramala eta antikoagultzailekin tratatua dagoela)*
4. *Karmeleri administratutako anestesiko lokal eta adrenalina kantitateak kalkulatu*
5. *Zein da adrenalina anestesiko lokalarekin batera ematearen helburua?*
6. *Ze antibiotiko aginduko dio odontologoak Karmeleri GUNA tratatzeko?*
7. *Odontologoak preskribatutako medikamentuen errezeta egin behar dio pazienteari. Horretarako osagai aktibozko sistemaren bidezko agindua egingo du. Definitu agindua aurreko ataletan aukeratutako analgesikoa eta antibiotikoarentzat, osagai aktibozko aginduaren sistemaren bidez. (bilatu informazioa fitxa teknikoetan AEMPS).*
8. *Ze informazio eman behar dio odontologoak Karmeleri agindutako farmako desberdinei buruz?*

